


# aTLaNTe PROieKTua

HAUR HEZKUNTZAKO ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK

D eredu a

Euskara, Matematika, Gaztelania



aTLaNTe  
BILDUMA

5




Nafarroako  
Gobernua



# aTLaNTe PROieKTua

HAUR HEZKUNTZAKO ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK  
D eredua  
Euskara, Matematika, Gaztelania



**TITULUA:** Haur Hezkuntzako Errrendimendu Adierazleak. D ereduak. Euskara, Matematika, Gaztelania.

**ARGITARATZAILEA:** Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** NG-IMAGEN Y DISEÑO

**MOLDIZTEGIA:** Linegraphic

**I.S.B.N:** 84-235-2804-9

**L.G.:** NA-2421/2005

**©:** Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.

**BULTZATZAILEA ETA BANATZAILEA:** Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoak  
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia  
Navas de Tolosa kalea, 21. 31 002 Iruña  
Tel.: 848 427 121. Faxa: 848 427 121  
[fondo.publicaciones@cfnavarra.es](mailto:fondo.publicaciones@cfnavarra.es)  
[www.cfnavarra.es/publicaciones](http://www.cfnavarra.es/publicaciones)

## aurkezpena

Atlante bildumaren zenbaki berri honetan Haur Hezkuntzako Gaztelania, Matematika eta D ereduko Euskara irakasgaietako errendimendu adierazleak aurkezten ditugu.

Lan hau Departamentuak heldu diren urteotarako duen plan estrategikoaren (Atlante proiektuaren) neurri multzoan kokatu behar dugu, eta Nafarroan baino gauzatu ez denez, izaera aitzindaria eta berritzalea du. Errendimendu adierazleek ikasleek Haur Hezkuntzan erdietsi behar dituzten helmugak ezartzen dituzte, adinaren eta gaitasunaren arabera. Curriculumean, ikasleek Haur Hezkuntzako etapa bukatzean erdietsi eta menderatu behar dituzten helburu eta edukiak zehazten dira modu argian, zehatzean eta arruntean.

Errendimendu adierazleek irakasleen lana errazten dute, ikasleak etapa bakoitzean jakin eta egiten jakin beharrekoia islatzeko moduko ikasgelako programazioak egiteko orduan. Baliagarriak dira jarduerak hautatzeko eta zaittasunak identifikatzeko (eta hala eskatzen duten alderdietan gehiago eragin ahal izateko). Helburu eta edukien erdieste eta asimilazio maila balioesteko irizpideak ere ematen dituzte.

Bestetik, informazioa ematen diete Lehen Hezkuntzako irakasleei Haur Hezkuntzako etapa amaitzean ikasleek erdietsi duten mailaren gainean. Horretatik abiatuta programatu beharko ditu etapa berriko ikaskuntzak. Horrela, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen arteko koordinazioa bermatzeko berebiziko tresna dira.

Errendimendu adierazleek adierazten dute norantz bideratu behar diren ikasleen ikaskuntzak, baina ez helburuak erdiesteko erabili behar diren bitartekoak. Ez dute finkatzen prozedurarik eta ez dute konpromisorik hartzen berariazko metodologia didaktiko batekin. Hortaz, irakaslea librea eta autonomoa da posible den metodorik onena erabiltzeko. Metodo hori bere dokumentu pedagogikoetan islatuko da.

Errendimendu adierazleek ikastetxeen barne ebaluazio prozesua egiten laguntzen dute. Ikasleen errendimenduaren ebaluazioa egokia den ala ez jakiteko balio dute. Barne ebaluazioa etengabeko hobekuntzaren zerbitzura paratu behar da eta estandarrak erdiestea lehen mailako baliabidea

dira horretarako. Aukera ematen dute ikastetxearen errealtitatea unean-unean ezagutzeko, eta ondorioz, hobekuntza ildoak ezartzeko.

Adierazleak gure hezkuntza sistematik espero duguna jakiteko erreferente dira, baina etorkizunean adierazle horiek hobetzeko irakasleek egindako iradokizunei, orientazioei eta hausnarketei irekiak daude. Lanerako dokumentu biziak dira, hobe daitezkeenak.

Bukatzeko, gure itxaropena da material hauek Haur hezkuntzako irakasleei lagunduko dietela eguneroko lan eskerga, eta inoiz esker txarrekoa den horretan.

Fermín Villanueva Ferreras

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendaria

# Haur Hezkuntzako errengdimendu adierazleak

## euskara. Dereduak

### **1. AHOZKO HIZKUNTZA**

- |  |           |
|--|-----------|
| ■ Kortesiazko formulak. Aurkezenak.  | <b>10</b> |
| ■ Eskaerak. Eskerrak ematea. Barkamena.  | <b>10</b> |
| ■ Informazioa transmititzea eta sentimenduak, desioak, egoerak, objektuak... deskribatzea. | <b>11</b> |
| ■ Narrazioak. Kontakizunak. Errezitatuak. Dramatizazioa.                                   | <b>12</b> |
| ■ Hitzaldiak. Eztabaidak. Elkarrizketak. Inkestak.   | <b>13</b> |
| ■ Jolasak.   | <b>14</b> |
| ■ Arauak.  | <b>15</b> |

### **1. HIZKUNTZA IDATZIA**

- |   |           |
|---|-----------|
| ■ Testu idatzien ulermenak. Hastapenak.   | <b>15</b> |
| ■ Testu idatzien ekoizpena. Hastapenak.   | <b>16</b> |
| ■ Testu tipologia erabiltzea (zerrenda testuak, testu literarioak, informatiboak, azalpenezkoak, aginduzkoak, ludikoak...). | <b>17</b> |
| ■ Baliabideen erabilera.  | <b>20</b> |

## Matemática

### **1. ZENBAKIAK ETA KALKULUA**

### **2. MAGNITUDEAK ETA NEURRIAK**

<b>2.1. Masa, edukiera eta denbora</b>	<b>24</b>
<b>3. GEOMETRIA: ESPAZIOAN KOKATZEA</b>	<b>25</b>
<b>4. ARRAZOIBIDE LOGIKOA ETA PROBLEMEN EBAZPENA</b>	<b>26</b>
 <b>LENGUA CASTELLANA</b>	 <b>29</b>
 <b>1. LENGUAJE ORAL</b>	 <b>31</b>
■ Fórmulas de cortesía. Presentaciones.	31
■ Peticiones. Agradecimientos. Disculpas.	31
■ Transmisión de información y descripción de sentimientos, deseos, situaciones, objetos...	31
■ Narraciones. Relatos. Recitados. Dramatización.	32
■ Conferencias. Debates. Entrevistas. Encuestas.	33
■ Juegos con palabras: rimas, trabalenguas y adivinanzas.	34
■ Normas. Instrucciones.	35
 <b>1. LENGUAJE ESCRITO</b>	 <b>36</b>
■ Iniciación a la comprensión de textos escritos.	36
■ Iniciación a la producción de textos escritos.	36
■ Uso de la tipología textual: textos enumerativos, literarios, informativos, expositivos, prescriptivos, lúdicos...	38
■ Utilización de los recursos.	41

# aTLaNTe PROieKTua

Haur Hezkuntzako ERRENDIMENDU adierazleak  
euskarra. D EREDUA



Asteriskoa duten adierazleak ziltasun berezikoak dira.



Etapa honetako euskarazko ikaskuntza-irakaskuntzan kontuan izan behar da euskararen ikaskuntza globalizatua, ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzak, eta inguru hurbilean erabiltzen direnak. Garatu nahi diren hizkuntza gaitasunak antzekoak badira ere, euskararen ezagutzak eta erabilerak inguru hurbilean ikasleendako berariazkoak eta egokiak diren estrategiak eta trataerak baldintzatuko dituzte. Ikasleen tipologia hagitz irekia izan daiteke euskararen ezagutza mailaren eta inguruko erabileraren arabera, eta beraz, ikasle bakoitzari ematen zaion erantzunak bana-banakoa izan beharko du, aipaturiko aldagai horien arabera.

Ama hizkuntza euskara duten ikasleek, hizkera berariazkoa duen ingurua badute, beren eskualdeko euskalkiko ahozko hizkuntzaren transmisioa jasoko dute. Horregatik, irakasleek hizkera hori balioetsiko dute eta lehenetsi eginen dute morfologian (hiztegian, aditz formetan, deklinabidean,...), sintaxian eta berariazko hizkeran, tokiko hizkuntza baliabideak sustatzeko eta aberasteko asmoz, eta gisa berean, erabilera orokorreko hizkuntza estandarizatu idatzia erabili eta diferentziatuko da.

Ama hizkuntza gaztelania duten ikasleek (euskarazko murgiltze ereduau dauden ikasleek) hizkuntza inputa jasoko dute, irakasleengandik batik bat. Irakaslek hainbat euskarri zinetiko eta paralinguistiko erabiltzen dute, diskurtsoa berrindartzeko baliabide materialez eta antolamenduzkoez gain. Irakaslearen hizkera erregulatu egiten da: ahoskera argiagoa eta motelagoa da, eta intonazioa, azentuazioa eta pausa gehiegizkoak egiten ditu, orainaldiko esaldiak motzak eta egitura ordenatukoak dira, lotune eta markatzaile gehiago daude, baita ohiko galderak ere. Izen eta aditz gehiago daude eta gaiak simpleagoak dira. Ikaslearekin ematen den elkarreraginean hainbat estrategia erregulatzaile daude: egiturak errepikatzen dira, esaldiak osatu eta zabaltzen dira, ereduak zuzendu eta ematen dira, erabili beharreko kodea jakinarazten da, argibideak eskatzen dira, etab. Bestetik, euskarriak (irudiak, materialak...) eta baliabide didaktikoak (jolasak, ipuinak, egitasmoak, txokoak...) erabiltzen dira, eta ikasgelako eta ikastetxeko espazioa eta denbora antolatzen dira hizkuntzaren arabera. Hizkuntzan murgiltzeko prozesuak segida du Lehen Hezkuntzako lehenbiziko ikasturteetan, eta beraz, maila bitzuon arteko koordinazioa interes handikoa da.

Inguru euskalduneko ikasle erdaldunekin kasuan, gainontzeko ikasleekin eta inguru hurbilekoak ematen dituen hizkuntza baliabideekin elkarreragina izan dezaten ahaleginduko gara, ikasleen gaitasunen garapena laguntzeko.

Inguru erdalduneko ikasle erdaldunekin ikastetxean eta inguruaren testuinguru erabilera eman dadin ahaleginduko gara, hizkuntzak aplikagarritasuna izan dezan (jarduerak, ludoteka, komunikabideak...).

Inguru erdalduneko ikasle euskaldunek beraien hizkuntzaren erabilera bultzada beharko dute, garatu ahal izateko gaitasunak eta motibazioa norbere buruarekin, talde homogeneo txikian, eta ikasgelan ematen diren elkarreragin egoeretan. Horietan ikasleak erabili ahal izanen ditu ikasgelako edo ikastetxeko dinamikan bestela erabiltzen zailak diren erregistroak.

## 1. AHOZKO HIZKUNTZA

Kortesiazko formulak. Aurkezpenak.

ADIERAZLEAK:

1. Agurra ezagutzea.
2. Zenbait hizkuntza formulekin agur egitea, egoeraren arabera.
3. Hizkuntzarenak ez diren zenbait formularekin (begirada, irribarrea, keinua...) agur egitea, egoeraren arabera.
4. Aurkezpeneko hizkuntza-adierazpena ezagutzea.
5. Norbere burua aurkeztea.
6. Hirugarren lagun bat aurkeztea.
7. Pertsonaren identitatearekin erlazionatzea izena eta abizenak.

Eskerak. Eskerrak ematea. Barkamena.

ADIERAZLEAK:

8. Agintera eta kortesiazko formula erabiliz zerbait eskatzea.
9. Agintera moduan egindako eskaera interpretatzea.
10. Baimena eskatzea ekintza bat egiteko.
11. Ekintza bat egiteko baimen-eskaera interpretatzea.
12. Eskerrak emateko gizarte formula erabiltzea, egoeraren arabera.
13. Eskerrak emateko erantzuna interpretatzea.
14. Barkamena eskatzeko formulak identifikatzea.
15. Barkamena eskatzea inguruaren arabera formula diferenteak erabiliz.

Informazioa transmititzea eta sentimendua, desioak, egoerak, objektuak... deskribatzea.

**ADIERAZLEAK:**

- 1 6. Sentimendua lehen pertsonan adieraztea (egon eta sentitu aditzak).
- 1 7. Beste batzuek egindako sentimendu adierazpenak interpretatzea.
- 1 8. Solaskideari galdeztea bere sentimenduen gainean.
- 1 9. Desioak edo beharrak interpretatzea formula egokiak erabiliz.
- 2 0. Beste lagun baten desioen edo beharren adierazpena interpretatzea.
- 2 1. Galderazko formula egokiak erabiliz gertakari esanguratsuen gaineko informazioa eskatzea (zer, nola, noiz, non, nork, nori, zerekin, etab.).
- 2 2. Beste batzuek emaniko informazioa interpretatzea.
- 2 3. Lehen pertsonan kontatzea gertatu zaien zerbait, ekintza espazioan eta denboran modu zuzenean kokatuz.
- 2 4. Objektu bat deskribatzea eta deskribapenarenengatik ezagutzea.
- 2 5. Objektu batek iradokitzen dituen sentimendu eta irudiak adieraztea.
- 2 6. Bertan diren objektuekin erkatzeak egitea.
- 2 7. Beste batzuek egindako erkatzeak interpretatzea.
- 2 8. Toki ezagunera iristeko egin behar den ibilbidea azaltzea.
- 2 9. Ibilbide bat nola egin behar den beste batek azaldu eta azalpen hori interpretatzen jakitea.
- 3 0. Objektuak, pertsonak, tokiak, helbideak, etab. aurkitzeko modua azaltzea, espazioko erreferentziak erabiliz.
- 3 1. Beste batzuek objektuak, pertsonak, tokiak, helbideak, etab. aurkitzeko emandako azalpenak interpretatzea.
- 3 2. Aparatu ezagun baten funtzionamendua azaltzea.
- 3 3. Aparatu baten funtzionamenduaren gaineko informazioa eskatzea.
- 3 4. Mezu bat beste lagun batzuei igortzeko identifikatzea.
- 3 5. Beste lagun batzuei mezu bat igortzea, mezuen edukia mantenduz.
- 3 6. Telefono bidezko komunikazioa eta emailea eta hartzalea bertan izanik ematen den komunikazioa bereiztea.
- 3 7. Emailearekin eta hartzalearekin telefonoz hitz egitea, komunikazioa hasi eta bukatzeko formula desberdinak erabiliz.
- 3 8. Telefonoz hitz egitea komunikazioa etetea saihestuz, komunikazio egoera bakoitzerako egoia diren adierazpenak erabiliz (iritzia eman, informazioa eskatu, barkamena eskatu, zerbait eskertu, etab.).

## Narrazioak. Kontakizunak. Errezitatuak. Dramatizazioa.

### ADIERAZLEAK:

39. Ipuin bat kontatzea literatura genero horrenak diren formulak (hasierakoak eta bukaerakoak) erabiliz eta argumentuko gertaera zenbait, protagonistaren eta bigarren mailako pertsonaien deskripzio laburra, eta elementu material esanguratsua erabiliz.
40. Hasierako eta bukaerako formulak dituen ipuin bat interpretatzea, argumentuko hiru gertakizunen narrazioa egitea, eta protagonista, bigarren mailako pertsonaiak eta elementu material esanguratsuren bat deskribatzea.
41. Beste haur batek ozen irakurritako ipuin baten narrazioa segitzea.
42. Haurrarenak esanguratsua den gertakari zehatz eta esanguratsu bat kontatzea, lehenaldiko aditz formak erabiliz eta zer gertatu zen, non gertatu zen eta beretzat garrantzitsua zergatik den azalduz eta gertakarien denborazko sekuentzia transmititzu.
43. Beste batzuek egindako kontakizunak interpretatzea.
44. Norberari gertaturiko pasadizo bat kontatzea.
45. Beste pertsona batek kontaturiko pasadizoa interpretatzea.
46. Irudi serieak antolatzea, narrazio bihurtu arte.
47. Narrazio bateko ilustrazioen ordena aldatzea, esanahi desberdinak emateko.
48. Poesia bat entzutean erritmoa eta errima antzematea.
49. Modu indibidualean edo taldeka memorizatzea, errezitatzea eta dramatizatzea erritmo eta intonazio egokiko biko errimatua, bertsoa eta poesia, gorputzaren hizkerarekin lagunduz.
50. Poesia bat entzutean, identifikatzea poesia hori osatzen duten elementu berariazkoak (tokia, denbora, koloreak, etab.) eta transmititu nahi duten mezua eta edukia gorpuzkerarekin erlazionatzea.
51. Banaka edo taldeka errezitatzea poesia narratibo bat, beharrezko etenak eginez eta intonazio eta erritmo egokia erabiliz.
52. Poesia narratibo batean ematen den gertakarien segida ezagutzea.
53. Poesia narratibo bat entzutean, identifikatzea poesia hori osatzen duten berariazko elementuak (tokia, denbora, koloreak, etab.), ideia nagusia, gertakari narratiboen segida, etab.
54. Poesiaren edukia titluarekin erlazionatzea, errezitatzean erreparatzen ote den erreparatuz.
55. Modu arrazoituan iritzia ematea, entzundako poesia gustuko duen ala ez.
56. Biko errimatua ekoizteko biko egitura erabiltzea, banaka zein taldeka, eredu bati jarraituz, intonazio eta erritmo egokia erabiliz.
57. Poesia bat analogiaz sortzea emandako erreferente batetik abiatuz, beharrezko aldaketak sartuz eta errima errespetatuz.
58. Banaka edo taldeka, poesia bat modu autonomoan asmatzea, erreferenterik gabe, bertsoen errima eta egitura errespetatuz.
59. Sortutako poesiaren bertsoak identifikatzea.

- 60. Haurrendako antzerki lan batean parte hartzen duten protagonista eta bigarren pertsonaiak (bividunak edo bizigabeak) identifikatzea.
- 61. Haurrendako antzerki lan batean parte hartzen duen pertsonaia (bividun edo bizigabe) bat interpretatzea.

Hitzaldiak. Eztabaidak. Elkarrizketak. Inkestak.

ADIERAZLEAK:

- 62. Banaka edo taldeka, gainontzekoen aurrean gai bat azaltza, irudiak edo marrazkiak baliatuz.
- 63. Banaka edo taldeka, hitzaldi bateko gaia identifikatza, irudiak edo marrazkiak baliatuz.
- 64. Banaka edo taldeka, hitzaldi batean emandako informazioa interpretatza, irudiak edo marrazkiak baliatuz.
- 65. \* Banaka edo taldeka, gainontzekoen aurrean gai bat aurkeztea, idatzitako gidoia baliatuz.
- 66. \* Banaka edo taldeka, hitzaldi batean emandako informazioa identifikatza, idatzitako gidoia baliatuz.
- 67. Hitzaldi bateko ideia nagusiak identifikatza eta izendatza.
- 68. Moderatzaileak eztabaida batean duen papera ezagutza eta betetza: norbere burua eta gainontzeakoak aurkeztea, gaia azaltza, hitza ematea, txanda errespetaraztea, etab.
- 69. Parte-hartzailearen papera ezagutu eta betetza: hitza eskatza, hitza noiz ematen zaion identifikatza, gainontzekoei entzutea, eztabaidagaiaren gainean iritzia ematea, argudioak ematea, beste lagun batzuen iritziak identifikatza, iritzi berekoa denari arrazoia ematea, norberarenaren kontrakoa den iritzi identifikatza, etab.
- 70. Elkarrizketatzailearen papera ezagutu eta betetza: publikoari agur egitea, elkarrizketatua aurkeztea, galderak egitea, erantzunak interpretatza, publikoari adio esatea, etab.
- 71. Elkarrizketatuaren papera ezagutu eta betetza: objektu edo gertakari baten gainean egiten zaion galdera identifikatza, iritzi propioarekin erantzutea, publikoari eta elkarrizketatzaileari agur egitea, etab.
- 72. Bikitako objektu edo gertakari baten gainean argumentatza.
- 73. Bikitako objektu edo gertakari baten gainean norbaitek argumentatzen duenean identifikatza.
- 74. Datu baten gaineko galdera zehatza egitea.
- 75. Galdetzen zaionaren gainean identifikatza.
- 76. Datu baten gaineko galdera zehatz bati erantzutea.
- 77. Inuesta batean parte hartza, egindako galderai erantzunez.

## Hitz-jolasak: errimak, aho-korapiloak eta asmakizunak.

### ADIERAZLEAK:

78. Jolasaren garapenak dituen uneek markatzen dituzten hitzak eta esaldiak ezagutzea eta aplikatzea. Baita jolas bakoitzean egin behar diren mugimenduak eta jarduera sekuentzia ere.
79. Fitxek, taulak edo kartek duten informazioa ezagutzea eskatzen duten mahai edo rol joko zenbait egitea.
80. Sehaska hitzekin, errimekin eta kantuekin keinu-jokoak egitea, intonazio onarekin eta erritmoa errespetatuz.
81. Isiltasuna soinurik eza bezala identifikatzea, jolasaren parte denean, errima eta sehaska kantekin.
82. Errima eta sehaska kantuetan hitza-isiltasuna konbinatuz jolasak egitea, intonazio onarekin eta erritmoa eta isiltasuna errespetatuz.
83. Entzundako errima edo sehaska kantu batean isiltasuna ordezka dezakeen hitzari aurreratzea.
84. Izenetik abiatuz eta keinuarekin bat, biko errimatuekin eta errimekin jolasak asmatzea, erritmoa eta intonazioa zainduz.
85. Errima eta entzundako ahozko mezua identifikatzea, egindako keinuarekin eta egindako jokoetako ideia nagusiekin erlazionatuz.
86. Erantzunean koherentzia logikoa duten biko errimatuak eta errimak sortzea.
87. Biko errimatuak eta errimak asmatzea, erantzun logikoa absurdu bihurtuz eta modu dibertigarrian adieraziz.
88. Aldrebeskeria bat entzutean, galdera eta erantzuna erlazionatzea.
89. Aho-korapilo batean entzundako hitz zenbait berriz esatea.
90. Aho-korapilo bat errexitatzea banaka, erritmo, intonazio eta fonetika egokia zainduz.
91. Aho-korapiloekin jolasak asmatzea, nork bere erritmoa, intonazioa eta fonetika zainduz.
92. Ahozko generoa den asmakizunaren hizkuntza egiturak identifikatzea, eredu ezagunetatik abiatuz.
93. Taldeari ezaguna den asmakizuna kontatzea, objektu baten edo irudi baten laguntzarekin eta laguntzarik gabe, intonazio egokia eta nork bere diskurtso formula erabiliz.
94. Entzundako ahozko mezua irudiarekin edo objektuarekin erlazionatzea.
95. Entzundako mezuaren hitzen arteko erlazio logikoa asmatzea, erantzun koherentea eman ahal izateko.
96. Entzundako asmakizun batean zer transmititu nahi den identifikatzea.
97. Asmakizun bat entzutean posible diren erantzun logikoak identifikatzea.
98. Bikoteka edo banaka asmakizun bat asmatzea, egokia den diskurtso formula aplikatuz.

## Arauak.

### ADIERAZLEAK:

99. Irakasleen aginduak ulertzea eta betetzea, ikasgelako jarduerei loturiko erritualetan (pertxan berokia zintzilikatu, materialak atera eta antolatu, ikasgelako eremu desberdinetara joan, jarduera psiko-motrizak, plastikoak edo adierazpen musikalekoak egin...).
100. Ikastetxean eta heldu batek etxeen emandako arauen azalpena interpretatzea.
101. Ikastetxeko eta etxeko arauak beste bati azaltzea.
102. Errezeta batean testu mota, osagaiak, tresnak, prozesua, etab. identifikatzea.
103. Errezeta bateko osagaiak, tresnak, prozesua, etab. deskribatzea, marrazkien, ebakigarrien, eta abarren laguntzarekin.
104. Beste batek egindako errezeta baten lanketa interpretatzea.

## 2. HIZKUNTZA IDATZIA

### Testu idatzien ulermena. Hastapenak.

### ADIERAZLEAK:

1. Testu baten edukia aurreratzea izenburutik, iruditik eta ezagutzen dituen hitz batzuetatik abiatuz.
2. Objektuen izena dagokion argazkiarekin edo marrazkiarekin lotzea.
3. Zenbait izenbururen artean hautatzea testuaren edukiari (ipuineta, albisteetan, errebetetan, kantuetan, poemetan, eta abarretan) hobekien egokitzen zaiona.
4. Testu bat osatzen duten tipografiak identifikatzea: letra larriak, lodiak, kurtsibak, azpimarratuak, etab.
5. \* Norberak idatzitako testuak ozenki irakurtzea.
6. \* Testu labur bat ozenki irakurtzea, intonazioa, ahoskera eta erritmo egokia emanet (poemak, lelotegiak,asmakizunak, kantuen errepiak...).
7. Irakasleak irakurritako zati bat zein testu motari (ipuinak, errezetak, poesiak...) dagokion ezagutzea.
8. Irakasleak irakurritako zati esanguratsu bat zein ipuin ezaguni dagokion identifikatzea.
9. \* Zenbait hitzen esanahia testuinguruaren arabera ondorioztatzea.
10. Irakurri dioten testuaren gainean iritzia ematea: gustatu ote zaion, lehenagotik badakien zerbaitekin erlazionatzen ote duen...
11. Interesarekin entzutea irakasleak ozenki irakurtzen duenean eta testua ulertzeta duela agertzea jarrera eta adierazpenekin.

## Testu idatzien ekoizpena. Hastapenak.

### ADIERAZLEAK:

- 1 2. Grafismoak marraztea, letrak imitatu, ezkerretik eskuinerako eta goitik beherako norabideak jarraituz.
- 1 3. Sasiletrak marraztea (letra arrunten marrazketa imitatzen duten grafismoak), hitz batek duen letra eta kopuru eta aniztasuna berriz esanez, ezkerretik eskuinerako eta goitik beherako norabidea jarraituz.
- 1 4. Nork bere izena eta beste ikaskide batzuena idaztea, hainbat xederekin: lanak eta ondasunak identifikatzea, arlo batzuetako parte-hartza erregistratzea, liburutegiko liburuak mailegatzeko, etab.
- 1 5. Idazkera silabikoa egitea, gero ahotsa emanez.
- 1 6. \* Modu alfabetikoan idaztea, letra bakoitza dagokion soinuarekin lotuz, zuzenketa ortografikoa kontuan hartu gabe.
- 1 7. Modu alfabetikoan idaztea, zalantza ortografikoak kontuan hartuz.
- 1 8. Testuak marraztea, idazketarako tresna (arkatza, boligrafoa, klariona, pintura, errrotulagailua, letra mugikorrak, teklatua...) eta euskarri egokia erabiliz (gutuna, folioan; kartela, kartoi mehean; gogoratzeko oharrok badira, agendan edo libretan; etxerako mandatu bat bada, paper zati batean, etab.).
- 1 9. Zenbakiak, letrak eta beste zeinu grafiko batzuk bereiztea.
- 2 0. Hitzak testu zati batean identifikatzea.
- 2 1. Hitz ezberdinetan letra berak identifikatzea.
- 2 2. Bere izena edo beste izen esanguratsu bat osatzen duten letren izena ezagutzea.
- 2 3. Letra guztien izena ezagutzea (letra larrien kasuan).
- 2 4. Edozein tipografiatako letren izena ezagutzea.
- 2 5. \* Hitz ezagunak eta ezezagunak deszfratzea testu labur batean.
- 2 6. Testua (errrotulua, etiketa, ipuina, gutuna, iragarkia, oharra, albistea, errezeta...) xedera (gogoratu, erregistratu, izendatu, datuak antolatu, informatu, komunikatu, adierazi, zerbait egiten irakatsi...) egokitzea.
- 2 7. \* Testu bat planifikatzea idatzi baino lehen: zer idatziko den (gaia), zertarako (idaztearen xede), norendako (jasotzailea) eta nola (euskarri materiala, testu mota...).
- 2 8. \* Idazte sistemaren konbentzio zenbait errespetatzea: hitzen, paragrafoen, marjinaren arteko banaketa, izenburuetarako bestelako tipografia.
- 2 9. \* Testuak berrikustea eta hobetzea idatzi ondoren, banaka zein taldeka.
- 3 0. \* Sortu den testua argitaratzea, editatzea eta jasotzaileari eskura jartzea.
- 3 1. \* Testu bat sortzeko garaian gertatzen diren zalantza edo zailtasunak identifikatzea eta konponbidea ematea, ikaskide baten edo irakaslearen laguntzarekin.
- 3 2. Ideiak emanez, xede desberdineko testu kolektiboen sorkuntzan parte hartzea.
- 3 3. Irakasleari testuak diktatzea, modu konbentzionalean transkriba ditzan eta eredu gisa balio dezan.

34. Izenburu bateko hitzak (modu desordenatuan emanak) ordena zuzenean idaztea.
35. Testuak kopiatzea memorizatuak edo gogoratuak izan daitezen: oharrak etxera eramateko, kantutegiak, poema liburuak, erreza liburuak, ipuin bildumak, joko bildumak, agendak...
36. Ipuin edo erreza bateko irudiak kronologikoki ordenatzea eta horietako bakoitzarekin bat datorren testua idaztea.
37. \* Beste batek hasitako testu idatzi bati jarraipena ematea.
38. Bi hitzen artean, testuinguruaren arabera egokiena dena hautatzea.
39. Testu bateko hitzak sinonimoengatik ordezkatzea.

Testu tipologia erabiltzea (zerrenda testuak, testu literarioak, informatiboak, azalpenezkoak, aginduzkoak, ludikoak...).

#### ADIERAZLEAK:

40. Zerrenda testuetan eskatutako informazioa interpretatzea eta kokatzea: ikasgelako errotuluak, zerrendak, etiketak, ordutegiak, egutegia, telebista programak, menuak, erreza, gidak, erosketa zerrendak, fakturak, inprimakiak, txartelak, kartelera, eskola ordutegiak, horma-irudiak, agendak, atlasak, mapak, ikasgelako planoa, hiztegiak, katalogoak, fitxa bibliografikoak, etab.
41. \* Zerrenda testu batean eskatutako datuak idaztea edo osatzea norbere kaxa (ikus aitzineko adierazlea).
42. \* Diktatuta, lan bat egiteko gogoratu behar diren hitzen zerrenda idaztea.
43. Beharrezkoa den lekuetan edo autorearen sinadura duten testuetan nork bere izena idaztea.
44. \* Irakurri duen ipuin batetik gogoan dituen pertsonaien zerrenda idaztea.
45. Ipuin, poema, komiki... liburu bateko azalean izenburua, autorea edo ilustratzailea non dagoen kokatzea.
46. Ipuinaren izenburuak ilustrazioekin eta pertsonaiekin erlazionatzea.
47. Pertsonaiak deskripzioekin, erabiltzen dituzten adierazpenekin, eta abarrekin erlazionatzea.
48. Ipuin baten irakurketa entzun eta liburuan irakurri batera egitea.
49. \* Lehenbiziko paragrafoak irakurri ondotik ipuin batek nola jarraitzen duen aurreikustea.
50. Ipuin batean pertsonaia baten izena ezagutzea.
51. Ipuinen egitura ezagutzea, eta beraz, hasierako eta bukaerako formulak, sarrera, korapiloa eta amaiera identifikatzeko gai izatea..
52. Ipuina entzun ahalaemozioak adieraztea (harridura, beldurra, poza...)
53. Diktatuta, ipuin ezagun baten esaldiak idaztea (esaldiok arbelean aitzinetik idatzi direlarik).
54. \* Literatura testuen edizioan, formatua eta tipografia egokitzea. Kasu, izenburuan eta testuaren gainontzekoan desberdina den tipografia erabiliz, ipuinaren formatu egokia hautatuz, etab.

55. \* Ipuin bat berridaztea, izenburua, pertsonaien elkarrizketak, deskribapenak eta amaiera aldatuz.
56. \* Irudi sekuentzia batetik abiatuz, sarrera, korapiloa eta amaiera duen ipuin baten testua sortzea.
57. \* Ezaguna den poema edo kantu bateko bertsoak ordenatzea, berregiteko.
58. Kantu, poema eta abarrendako beste izenburu batzuk asmatzea.
59. Hitzen bat, bertsoren bat aldatuz eta errima errespetatuz poemak berridaztea.
60. \* Kantu batean leloa aurkitzea.
61. Irakasleak irakurritako komiki bateko bunbuiloaren testua dagokion pertsonaiarekin erlazionatzea.
62. Ordena logikoari jarraituz, komiki bateko biñeten sekuentzia berregitea.
63. Lau biñetetako komiki bateko bunbuiloak betetzea.
64. Irakurri izan dieten komiki tira batetik abiatuz istorioa eraikitzea.
65. Ipuina, poema, komikia, eta abarra zergatik gustatu zaien azaltzea.
66. Berri idatziak zein euskarrian aurki daitezkeen identifikatzea.
67. Berri batean izenburua eta berriaren gorputza bereiztea eta lotzea.
68. Egunkari batean berri baten garrantzia identifikatzea titularraren tamainaren eta hartzen duen lekuaren arabera.
69. Egunkarian intereseko berri bat aurkitzea eta denboran zehar jarraitzea.
70. Berri bat irakurri ondotik, ahoz erantzutea nor, zer, non, noiz eta nola galderei.
71. \* Berri bat berridaztea izenburua eta edukia aldatuz, azalpenaren eskema mantenduz (nor, zer, non, noiz eta nola).
72. Egunkari batean, berria dagokion argazkiarekin lotzea.
73. Titularretik abiatuz, berri baten talde-idazketan parte hartzea.
74. Gutun batean identifikatzea igorlea eta kortesiazko, aurkezpeneko eta agurtzeko formulak.
75. \* Gutun pertsonal batean diosal egiteko eta agurtzeko formulak idaztea, jasotzailearen araberako formula zuzena baliatuz (ikastetxeko zuzendaria, lagun bat, alkatea, etab.).
76. Gonbidapen batean identifikatzea nork gonbidatzen duen, noiz, non eta zergatik.
77. Gonbidapen baten testua idaztea, bertan zer ospatzen den, tokia, data, ordua eta sinadura azaltzen direlarik.
78. Zorionak emateko idaztea (eguberriak, urtebetetzeak...).
79. Postal batean jasotzailearen izena eta helbidea non idatzi behar diren ezagutzea.
80. \* Gutunazal batean igorlearen eta jasotzailearen izenak idaztea.
81. \* Diktatuta, gurasoendako oharra idaztea.
82. Zorionak posta elektronikoz ematea.
83. Mezu elektroniko batean igorlea nor den kokatzea.
84. Gertakari bat iragartzeko kartelak duen informazioa identifikatzea (zer, noiz, non...).
85. Publizitate kartel edo eskuliburu bateko informazioa identifikatzea (produktua, prezioa, eslogana...).
86. Kartel bateko datuak osatzea.

87. Eskola gertakari bat (inauteri festa, autore baten bisita, zuhaitzaren festa) iragartzeko kartela egitea.
88. Gai jakin bat aztertzeko material egokiak hautatzea, azaleko, bizkarreko, kontrazaleko, aurkibideko eta barruko erreferentzien (testuen eta irudien) bidez.
89. Irakurketaren xedea ulertzeari: argitu nahi duen zalantza, aurkitu asmo duen informazioa, etab.
90. \* Behar duen informazioa zein orritan, tokitan eta paragrafotan aurkitzen den kokatzea.
91. \* Azalpenezko testu batean, zenbakizko datu jakin bat aurkitzea, eta hala behar denean, azpimarratzea eta koadernoan idaztea.
92. Bilaketaren emaitza egiaztatzea, hots, irakurketaren xedea erdietsi ote den egiaztatzea.
93. Azalpenezko testu batean identifikatzea non dauden ulemerena eragozten duten zailtasunak.
94. Irakaslek ozen irakurritako azalpenezko testu bateko gaia identifikatzea.
95. \* Erantzuna testu jakin baten irakurketan duen galdera eta erantzuna idaztea.
96. \* Adinera egokitutako hitzegian hitzak aurkitzea eta definizioren bat kopiatzea.
97. Gidoi edo eskema eraikitza taldeka irakaslearen laguntzarekin, testuarekin erantzun daitezkeen galderetatik abiaturik.
98. Hutsuneak dituen kontzeptu mapa edo testua osatzea, lexiko zehatza erabiliz.
99. \* Norbere kabuz, azalpenezko testuetara jotzea, ikasketa gairen baten gainean zerbait jakin nahi denean.
100. Azalpenezko testu bat idazteko gidoi bat taldean egitea, zenbait informazio iturritik jaso diren oharrak edo fitxak oinarri gisa hartuz. Izenburua jarri.
101. Azalpenezko testu batean, formatu eta tipografia bera ematea kategoria bereko ideiei.
102. Azalpenezko testuak lotzea testuaren edukia ilustratzen duten irudiekin, argazkiekin edo marrazkiekin.
103. Besteen testuetan aipatzea, zehaztasunagatik, ideia argitasunagatik ordenagatik eta abarrengatik egokiak iruditzen zaizkion esamoldeak.
104. Azalpenezko testu zatitua antolatzeari izenburuak, irudiak edo grafikoak, testua... erabilita.
105. \* Moztutako azalpenezko testu batean hitz egokia sartu.
106. Sukaldeko errezeta batean izenburua, osagaien zerrenda eta prozedura kokatzea.
107. Sukaldeko errezeten izenburuak dagozkien argazkiekin lotu.
108. Errezeta batean desordenaturik dauden zatiak ordenatu (irudiak, izenburua, osagaiak, prozedura...):
109. Errezeta batek proposatzen dituen jarraibideak exekutatzea, irakaslek testua irakurri ahala.
110. Irakurri dioten errezetari zein osagai ez dagokion asmatzea, beharrezkoak baino osagai gehiago dituen osagai zerrenda batetik interpretatzu.
111. Errezeta bat irakurri ondotik erabiltzen diren osagaien zerrenda idaztea.
112. Taldeka berridaztea ezagutzen duten errezeta bat, irudiak erabiliz.
113. Lehenago irakaslek irakurri dien jolas xume bateko arauak gainontzeko lankideei azaltzea.
114. Ezagutzen duten jolas baten arauak taldeka berridaztea.

115. Hizki zopa batean zenbait hitz aurkitzea.
116. Hizki zopak egitea ikaskideek asmatzeko.
117. Desordenaturiko letretatik abiaturtuz hitz edo esaldi xumeak egitea.
118. Irakaslearen laguntzarekin edo laguntzarik gabe hitz gurutzatu errazak egitea.
119. Eskolako jarraibideen testu batean kokatzea non dagoen egin beharreko lana.
120. Ikerketaren portaera araukin zerrenda bat idaztea taldeka.
121. Sute kasuetan ikastetxea ebakuatzeko jarraibideak zuzen interpretatzea, irakasleak jarraibideak irakurri ondotik.

---

#### Baliabideen erabilera.

##### ADIERAZLEAK:

122. Liburutegiko arauak ezagutu eta errespetatzea (portaera, materialen zainketa...).
123. Liburutegiaren antolamendua ezagutzea (seinalatzapena, funtsen, fitxategien, espazioen, mailegu sistemaren... kokapena).
124. Literatura testuak (ipuinak, poemak edo komikiak) liburutegi zentraleko zein liburutan edo bestelako euskaritan aurki daitezkeen identifikatzea.
125. Azalpenezko testuen (liburuen, aldizkarien, CDen, eta abarren) kokapena ezagutzea ikastetxeko edo ikasgelako liburutegian.
126. Liburu batean bizkarra, azala eta kontrazala bereiztea.
127. Liburutegiko funtsak katalogatzeko fitxak betetzea, izenburua, autorea eta argitaletxea idatziz.
128. Etxean irakurtzeko liburutegiak duen mailegu zerbitzua erabiltzea.
129. Liburu batean irakurri duenaren berri edo liburutegiko film batean ikusi duenaren berri ematea.
130. Baliabide informatikoak ezagutzea.
131. CD-ROM baten karatula edukiarekin lotzea.
132. CD-ROM baten edukian barna mugitzeko sagua erabiltzea.
133. Web orrialde baten izenburua identifikatzea eta lotuneren bat erabiltzea.
134. Testu prozesadorearekin lan saio bat hastea eta bukatzea.
135. Testu bat egitea eta inprimatzea, taldeka, testu prozesadorea erabiliz.
136. Zenbait egunkariren izena eta horien data identifikatzea.
137. Aukerak erabiliz, egunkariko sail jakin (telebistako programazioa, eguraldiaren mapa...) bat zein orritan egon daitekeen aukitzea.
138. Egunkari batean publizitatea identifikatzea.

# aTLaNTe PROieKTua

Haur Hezkuntzako ERRENDIMENDU adierazleak  
MaTEMaTiKa





## 1. ZENBAKIAK ETA KALKULUA

---

### ADIERAZLEAK:

1. Zenbakien izenak ezagutzea: zero, bat, bi, hiru...
2. Ordena finkoa duten zenbakiak ezagutzea (bat, bi, hiru...).
3. Emandako zenbaki baten aurreko eta ondoko zenbakiak zein diren esatea. (urretik eta atzetik)
4. Zenbakiak batetik hamarrera, banan-banan eta binaka, gorako eta beherako ordenan (zuzenean eta alderantziz).
5. Ekintza edo gertaera errepikakorrik (txaloen, urratsen laguntzarekin...) kontatzea zenbait maiztasun erabiliz.
6. Gehi eta gutxi adierazpenak ezagutzea.
7. Bi objektu bildumaren artean, zenbaki handiago bat edo txikiago bat zein bildumatan dagoen zehaztea.
8. Bi bildumak objektu kopuru bera izan dezaketela ulertzea, edozein izanik ere objektu horien tamaina.
9. Kopuru bera grafikoki irudikatzea, objektu desberdinak dituzten bildumak erabiliz.
10. Zenbakia pertsona kopuru zehatz batekin lotzea, objektuak banatu behar direnean.
11. Objektu edo irudikapen kopuru txiki bati dagokion zenbakia zein den ezagutzea.
12. Zenbaki arrunten grafia ezagutzea.
13. 0 10tik bitarteko zenbakiak bereiztea.
14. 0tik 10 bitarteko zenbakiak irakurtzea.
15. 0tik 10 bitarteko zenbakiak idaztea.
16. Lehenetik hamargarrenera bitarteko ordinalak zuzen erabiltzea.
17. Zerotik hamarrera bitarteko zenbakiak idatziz ordenatzea.
18. Emandako bi zenbakiren artean, zein den zenbakirik handiena eta zein txikiena zehaztea.
19. Bilduma bateko objektuen kopurua irudikatzen duen zenbakia idaztea.
20. Emandako zenbaki bat adierazten duten objektuen kopurua grafikoki irudikatzea.
21. Multzo batetik elementuak hartzea, zenbaki jakin batek adierazten dituen bezainbat.
22. Bilduma bateko elementuak kontatzea.
23. Jakitea kopurua eta zenbakia handitu egiten direla, emandako bilduma bati elementuak gehitzen zaizkionean.
24. Jakitea kopurua eta zenbakia murriztu egiten direla, emandako bilduma bati elementuak kentzen zaizkionean.
25. Eguneroko egoeretan bikoitza eta erdia kontzeptuak egoki adieraztea.
26. Norberak, bere esperientziatik abiaturik, zenbakien erabilgarritasuna frogatzen duten egoerak identifikatzea, besteak beste: egutegia, igogailuak, autobusak, jokoak, etab.

27. Interesa izatea zenbakia zer den eta zenbaki hori eguneroko bizitzan nola aplika daitekeen jakiten.
28. Haurrak bere inguruan behar dituen zenbakiak egoki erabiltzea.
29. Zenbakizko kalkulua erabili beharreko benetako egoera bat ebaztea.

## 2. MAGNITUDEAK ETA NEURRIAK

---

### ADIERAZLEAK:

30. Luzerari buruzko kontsignetan emandako (luze, oso luze, labur...) nolakotasunak dituzten objektuak adieraztea.
31. Neurketetan erabilitako hau baino gehiago, bezainbat, hau bezainbat, hau baino gutxiago adierazpenak ezagutzea.
